**Soraluzeko Udalak, zuzeneko emakida prozeduraren bidez, 2025eko ekitaldian hainbat arlotako programen eta proiektuen garapena finantzatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak.**

**Bases reguladoras para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Soraluze, mediante concesión directa, correspondiente a las ayudas económicas destinadas a financiar el desarrollo de programas y proyectos anuales de distintas áreas durante el ejercicio 2025.**

**1. Xedea.**

Deialdi honen xedea da, Soraluzeko udalerrian 2025eko ekitaldian urteko programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteei, proiektuen garapena finantzatzeko zuzeneko emakida prozedura bidez, laguntza ekonomikoak ematea arautzea.

Soraluzeko Udalak aurrera eramaten dituen ekimenen osagarri edo ordezko izanik, onura publikoko edo gizarte-intereseko helburua duten eta deialdi honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten ekimenen garapena diruz lagundu ahal izango da.

**1. Objeto.**

El objeto de la presente convocatoria es la regulación de la concesión de ayudas económicas, en régimen de concesión directa, destinadas a financiar el desarrollo de de proyectos a asociaciones sin ánimo de lucro, que durante el ejercicio 2025 desarrollen programas anuales en el municipio de Soraluze,

Será subvencionable el desarrollo de las iniciativas, que siendo complementarias o sustitutivas a las iniciativas que lleva a cabo el Ayuntamiento de Soraluze, conlleven una finalidad de utilidad pública o interés social y cumplan las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.

**2. Onuradunak.**

Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte pertsona fisiko edo juridikoen elkarteek, erakunde publiko edo pribatuek, ondasun-erkidegoek edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare bananduek, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, diru-laguntza ematea eragin duten jarduerak egin baditzakete, eta, betiere, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen ez bada.

**2. Personas beneficiarias.**

Podrán solicitar las subvenciones que se regulan por las presentes Bases las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, entidades públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aún y careciendo de personalidad jurídica, pudiera llevar a cabo las actividades que motiva la concesión de la subvención, siempre que no concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2033, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezkoak direnak eta ezarritako epean behar bezala justifikatzen direnak.

**3. Gastos subvencionables.**

Se consideran gastos subvencionables aquellos que sean necesarios para llevar a cabo la actividad objeto de subvención y sean justificados debidamente en el plazo

establecido.

Diruz lagundutako proiektuaren edo programen gastuei dagozkien fakturak deialdiaren urtean jaulki beharko dira.

Las facturas correspondientes a los gastos del proyecto o programas subvencionados deberán ser emitidas durante el año de la convocatoria.

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako beste edozein diru-laguntzarekin. Hala ere, onuradunak guztira lortutako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera hartuta.

La concesión de las presentes subvenciones serán compatibles con la obtención de cualquiera otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra administración o ente público o privado. No obstante, el importe de las subvenciones obtenidas en total por el/la beneficiario/a en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**3. Dirulaguntzen zenbatekoa.**

Eman beharreko diru-laguntzen zenbatekoak Udaleko sail bakoitzari dagozkion aurrekontu-partidetan zehaztuta daude. Honako hauek dira:

1 0200.481.01.327.00 (777) Bizikidetza diru laguntzak (600 €)

1 0400.481.02.230.00 (544) Elkarteen gizarte-ekintzarako diru-laguntzak (10.000 €)

1 0400.481.02.337.10 (673) Diru-laguntza erretiratuen etxean (15.000 €)

1 0500.481.01.320.00 (228) Hezkuntzarako diru-laguntzak (52.000 €)

1 0700.481.01.170.00 (790) Iraunkortasun eta ingurumen laguntzak (1.500 €)

1 1000.481.01.330.00 (229) Kulturarako diru-laguntzak (62.910 €)

1 1100.481.01.342.00 (231) Kirol jardueretarako diru-laguntzak (30.200 €)

1 1100.481.02.342.00 (384) Kirol kluben diru-laguntzak (21.530 €)

**4. Cuantía de las subvenciones.**

Las cuantías de las subvenciones a conceder estás concretadas en las distintas partidas presupuestarias correspondientes a cada departamento del Ayuntamiento y que son las siguientes:

1 0200.481.01.327.00 (777) Subvenciones convivencia (600 €)

1 0400.481.02.230.00 (544) Subvenciones acción social Asociaciones (10.000 €)

1 0400.481.02.337.10 (673) Subvencion Hogar del Jubilado (15.000 €)

1 0500.481.01.320.00 (228) Subvenciones educación (52.000 €)

1 0700.481.01.170.00 (790) Subvenciones sostenibilidad y medio ambiente (1.500 €)

1 1000.481.01.330.00 (229) Subvenciones cultura (62.910 €)

1 1100.481.01.342.00 (231) Subvenciones actividades deportivas (30.200 €)

1 1100.481.02.342.00 (384) Subvenciones clubes deportivos (21.530 €)

1 1200.481.01.335.00 (226) Euskara jardueretarako diru-laguntzak (42.276 €)

1 1500.481.01.337.20 (388) Haur eta gazteentzako diru-laguntzak (33.850 €)

1 1700.481.01.231.50 (658) Berdintasun-batzordearen diru-laguntzak (1.500 €)

1 1800.481.01.431.00 (233)) Merkataritzako diru-laguntzak (11.500 €)

Sail bakoitzeko Informazio Batzorde bakoitzak eskatzaile bakoitzari esleitu beharreko kopurua proposatuko du, jardueraren aurrekontuaren ehunekoaren mugarik gabe.

**5. Eskaerak: epea, tokia eta dokumentazioa.**

**5.1. Epea:** eskabideak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da zabalik.

**5.2. Lekua:** eskabidea Udaleko Erregistro Orokorrean egingo da:

Internet bidez: eskaera Erregistro Elektronikoa atalean eginez https://www.soraluze.eus/eu/tramiteak/udaltramiteak/dirulaguntzak?set_language=eu

Aurrez aurre: udaletxeko bulego orokorretara joanda eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

**5.3 dokumentazioa:** diru-laguntza eskatzeko inprimaki normalizatuak aurkeztu beharko dira, oinarri hauen amaieran jasotzen direnak, eta hemen eskura daitezke:

https://www.soraluze.eus/eu/tramiteak/udaltramiteak/dirulaguntzak?set_language=eu

- Eskabide-orria
- Aurrekontua
- Proiektuaren txostena

**5.4.** Eskaera aurkeztu ondoren, eskatzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

1 1200.481.01.335.00 (226) Subvenciones actividades euskara (42.276 €)

1 1500.481.01.337.20 (388) Subvenciones infancia y juventud (33.850 €)

1 1700.481.01.231.50 (658 ) Subvenciones comisión igualdad (1.500 €)

1 1800.481.01.431.00 (233) Subvenciones comercio (11.500 €)

Cada Comisión Informativa de cada departamento propondrá la cantidad a asignar a cada solicitante, sin límite de porcentaje del presupuesto de la actividad.

**5. Solicitudes: plazo, lugar y documentación.**

**5.1. Plazo:** el plazo de presentación de las solicitudes está abierto hasta el 31 de diciembre del 2025.

**5.2. Lugar:** La solicitud se realizará en el Registro General del Ayuntamiento:

Vía Internet: Realizando la solicitud en el apartado Registro Electrónico https://www.soraluze.eus/es/tramites/tramites-municipales/ayudas-y-subvenciones

De forma presencial: Acudiendo a las oficinas generales del Ayuntamiento y presentando la documentación requerida.

**5.3 Documentación:** Se deberán presentar los impresos de solicitud de subvención normalizados que se recogen al final de estas bases, disponibles a su vez en https://www.soraluze.eus/es/tramites/tramites-municipales/ayudas-y-subvenciones

- Impreso de Solicitud
- Presupuesto
- Informe del Proyecto

**5.4.** Presentada la solicitud, se comprobará que el solicitante cumple los requisitos

exigidos.

**6. Onuradunen betebeharrak.**

Diru-laguntzen onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Proiektua gauzatzea, jarduera gauzatzea edo diru-laguntzak emateko oinarri den portaera hartzea.

b) Diru-laguntza ematen duen organoaren aurrean justifikatzea diru-laguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

c) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen- eta finantza-kontroli ere, eta aurreko jarduketetan eskatzen zaion informazio guztia ematea.

d) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, Udalari horren berri ematea.

e) Publizitate-betebeharrak betetzea. Soraluzeko Udalaren lankidetza adieraziko da diru-laguntzaren xede diren jarduerei buruz egiten den publizitatean, erakundeak une horretan onartuta duen irudi korporatiboaren arabera.

f) Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritako printzipioak betetzea diruz lagundutako jardueretan, eta euskaldunen hizkuntza-eskubideak errespetatuz jardutea.

g) Beren jardueretan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean

**6. Obligaciones de los beneficiarios.**

Los/Las beneficiarios/as de las subvenciones deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

a) Ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Comunicar al Ayuntamiento la obtención de subvenciones, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

e) Cumplir con las obligaciones de publicidad. Se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Soraluze en la publicidad que se realice sobre las actividades objeto de subvención, conforme a la imagen corporativa que la institución tenga aprobada en ese momento.

f) Cumplir en las actividades subvencionadas con los principios establecidos por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del euskera, y actuar con respeto a los derechos lingüísticos de las personas vascoparlantes.

g) Cumplir en sus actividades con los principios generales establecidos en la Ley

ezarritako printzipio orokorrak betetzea, bereziki honako alderdi hauei dagokienez: hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, eta genero-adierazleak sartzea diruz lagundutako jarduera ebaluatzeko irizpideetan.

4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: Uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

h) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimen guztiak lortzea eta haren zehaztapenak betetzea.

h) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

**7. Jasotako funtsen justifikazioa: epea, lekua eta dokumentazioa.**

**7. Justificación de los fondos recibidos: plazo, lugar y documentación.**

**7.1. Epea:** diru-laguntza justifikatzeko azken eguna diruz lagundutako jarduera amaitu eta hiru hilabetera izango da, eta gehienez ere 2026ko martxoaren 31n.

**7.1. Plazo:** el último día para la justificación de la subvención será a los tres meses desde la finalización de la actividad subvencionada y como máximo el 31 de marzo del 2026.

**7.2. Lekua:** justifikazioa Udaleko Erregistro Orokorrean egingo da:

**7.2. Lugar:** La justificación se realizará en el Registro General del Ayuntamiento:

Internet bidez: eskaera Erregistro Elektronikoa atalean eginez https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=065&hizkuntza=EU

Vía Internet: Realizando la solicitud en el apartado Registro Electrónico https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=065&hizkuntza=CA

Aurrez aurre: udaletxeko bulego orokorretara joanda eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

De forma presencial: Acudiendo a las oficinas generales del Ayuntamiento y presentando la documentación requerida.

**7.3. Dokumentazioa:** diru-laguntza justifikatzeko inprimaki normalizatuak aurkeztu beharko dira, oinarri hauen amaieran jasotzen direnak. Inprimaki horiek eskuragarri daude hemen: https://www.soraluze.eus/eu/tramiteak/udaltramiteak/dirulaguntzak?set_language=eu

**7.3. Documentación:** Se deberán presentar los impresos de justificación de subvención normalizados que se recogen al final de estas bases, disponibles a su vez en https://www.soraluze.eus/es/tramites/tramites-municipales/ayudas-y-subvenciones

- Amaierako memoria
- Azken balantzea
- Fakturak
- Justifikazio-orria
- Baliabideak aplikatzeari buruzko adierazpena

- Memoria Final
- Balance Final
- Facturas
- Hoja de justificación
- Declaración de aplicación de recursos

**7.4.** Justifikazioa aurkeztutakoan, eskatzaileak eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

**7.4.** Presentada la justificación, se comprobará que el/la solicitante cumple los requisitos exigidos.

**8. Diru-laguntza errebokatzea eta itzultzea.**

Egoera hauetakoren bat gertatuz gero, diru-laguntzaren dirua eta diru-laguntza entregatzen denetik itzulketa ebazten den arte sortutako berandutze-interesak itzuliko dira:

a) Jasotako funtsei emandako erabilera epe barruan eta behar bezala ez justifikatzea.

b) Eskatutako dokumentazio guztia adierazitako egunetan ez aurkezteak diru-laguntza ukatzea ekarriko du. Era berean, datuak ezkutatzeak edo faltsutzeak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

c) Diru-laguntza ematean onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.

d) Diru-laguntzaren helburua osorik edo zati batean ez betetzea.

e) Kontrol-organoei beren jarduketak eragoztea edo zailtzea.

Kudeaketa-, ikuskapen- eta kontrol-prozesuetan aurkitzen badira emandako laguntza modu desegokian jaso edo erabili delako zantzuak, espediente bat irekiko da horren berri emateko, eta beharrezko kautela-neurriak hartuko dira.

**9. Prozedura eta Ordainketa.**

**9.1. Prozedura:** Sail bakoitzeko Informazio Batzordeak proposatuko du eskatzaileak aurkeztutako eskaera onartzea edo ukatzea, eta Alkatetzaren dekretu bidez ebatziko da.

**9.2. Ordainketa:** Oro har, ordainketa bakar baten bidez ordainduko da emandako diru-laguntza.

Soraluze, 2025eko martxoaren 27a.—Alkatea.

**8. Revocación de la subvención y devolución de la misma.**

En caso de que se dé una de las siguientes situaciones, se devolverá el dinero de la subvención y los intereses de demora generados desde el momento de entrega de la subvención hasta el momento en que se resuelve su devolución:

a) No justificar en plazo y forma el destino dado a los fondos recibidos.

b) No presentar toda la documentación requerida en las fechas señaladas supondrá la denegación de la subvención. De la misma manera, ocultar y/o falsificar datos supondrá la pérdida del derecho a recibir la subvención.

c) No cumplir las condiciones impuestas a los beneficiarios al concederles la subvención.

d) No cumplir el objetivo de la subvención en su totalidad o en parte.

e) Impedir o dificultar a los órganos de control sus actuaciones.

Si en los procesos de gestión, inspección y control se descubren indicios de que la ayuda concedida se ha recibido o utilizado de forma inadecuada, se incoará un expediente para dar cuenta de ello y se tomarán las medidas cautelares necesarias.

**9. Procedimiento y pago.**

**9.1. Procedimiento**: La aprobación o denegación de la solicitud presentada por el solicitante, será propuesta por la Comisión Informativa de cada departamente y resuelta por Decreto de Alcaldía.

**9.2. Pago**: El abono de la subvención concedida se realizará como norma general mediante un único pago.

Soraluze, a 27 de marzo de 2025.—El Alcalde.